

# EUSKALTZAINDIA, EUSKARA BATUA ETA IPAR EUSKAL HERRIA

2024-11-13 Baiona Iker zentroan - UEU  
Battittu Coyos, Euskaltzaindia



Jardunaldi honen aurkezpen-txostenean, UEUk hori erraten du: « UEUrentzat, eta oro har, unibertsitatearentzat, hizkuntza eredu estandarra, Batasuna, ezinbestekoa da. Ezingauzatu jarduera akademikoa, ezta ikerkuntza edo dibulgazio zientifikoa, hizkuntza eredu normalizaturik gabe, Euskara Baturik gabe, alegia ».

Ikuspuntu hau baztertu gabe, euskara batuaren ezaugarrietan, euskaldun ezberdinen arteko **elkar-ulertzea** emendatuko nioke, euskalki eta euskaldun zenbaiten arteko ez ulertzea gainditzea kontuan hartzeko baita.

Txostena aipatzen dut berriz: « Ezin ahaztu, Euskara Batua ez dela inorena, ezta inongoa baina aldi berean guztiona dela, Euskal Herri osokoa alegia. Hizkuntza eredu estandarrik gabe ez dago euskaldunentzat, ez hezkuntzarik, ez hedabiderik, ez administrazio publikorik ezta unibertsitaterik ».

Euskara batuaren zuzentasunaz mintzatu baino lehen, euskara batuaren historiaz Ipar Euskal Herrian bi hitz erran nahi nituzke.

UEUren txostenak Euskaltzaindiaren erreferentzialtasuna aipatzen baitu, « Euskaltzaindia, euskara batua eta Ipar Euskal Herria » gaia hiru etapatan laburki aurkeztuko dut.



## **1. etapa 1920: Euskaltzaindia eta euskara estandar baten beharra - Pierre Broussain eta Arturo Campión**

1919an sortu bezain laster, Euskaltzaindiak ikerketa, txosten eta bilkurak egin zituen euskararen batasunaz.

Urte bereko bere lehen estatutuetako 6. puntuan hau idatzia zen:

*Ekingo du euskalgi oroen odolez azitako euskal-eredu bat gertutzen, itzez, itz-yoskeraz ta idazkeraz al bait erabatetsuena, euskaldun guziak idatz-irakurketan erabiltzekoa.*

Hastapenetik ere mugako bi aldeetako euskaltzainak izendatu zituen, elkarrekin lan egin zezaten. Adibidez, euskaltzain kideek galdaturik, 1920ko apirilean, Pierre

Broussainek, Hazparneko mediku eta politikariak, eta Arturo Campiónek, Iruñeko idazle eta politikariak, idatzi zuten *Informe de los señores académicos A. Campión y P. Broussain a la Academia de la Lengua Vasca sobre unificación del euskera* txostena beste euskaltzainei aurkeztu zieten Donostian.

Baina, euskara batuaren sortzeko prozesuan, Euskaltzaindiak kontrako indarrak bazituen kanpoan eta barnean, eta 60ko hamarkada arte aitzinamendu ttipiak izan ziren euskararen estandarizazioaren alorrean.



## **2. etapa 1964: Baionako lantaldea Txilladegiren zuzendaritzapean**

Euskara batuaren sortzeko, urrats erabakagarria Baionan 1963-1964 urteetan izan zela erran daiteke. Euskara batua lotua da Euskaltzaindiak antolatu zuen Arantzazuko Biltzarrarekin (1968), baina aitzinetik bilkurak egin ziren euskara batuaren oinarriak lantzeko eta horietan sartzen dira Baionan izan zirenak.

Hain zuzen, 1963ko udazkenetik 1964ko uda arte, Jose Luis Álvarez Enparanza «Txillardegi» euskalariaren eta politikariaren gidaritzapean, zortzi hilabetez, aste oroz, zortzi euskaltzale bildu ziren Baionako Cordeliers karrikan lan egiteko. Euskaltzale ausart horiek ziren: Txillardegi beraz eta Eneko Irigarai (ETA, ETArek lehen heriotza-atentatua 1968koa da), Jesus Solaun eta Telesforo Monzon (EAJ/PNV), denak Hegoaldetik joandako iheslariak, Jean-Louis Davant (Enbata) eta Iparraldeko hiru elizgizon, Piarres Andiazabal, Roger Idiart eta Jean Hiriart-Urruty. Beste batzuek ere batzuetan parte hartu zuten lan horietan.

Euskara batzeko bidean, lana zen ortografiaz, aditzaz eta izenaren deklinabideaz bereziki proposamen sinple eta zehatz batzuen egitea. Taldearen lanaren fruitua ber gunean, 1964ko agorrilaren 29 eta 30ean, etorri ziren Euskal Herri osotik berrogei bat euskaltzaleei aurkeztu zieten eta 1968ko urrian, Arantzazun, Koldo Mitxelena euskaltzainak txosten batean aurkezturik, Euskaltzaindiak proposamenak onartu zituen. *Baiona'ko Biltzarraren Erabakiak* izenburuarekin 1966an argitaratu ziren. Hona, proposamen linguistiko horiek baino lehen, dokumentuan agertzen zen aldarrikapena:

*« Baiona'ra euskaldun idazleak eta irakasleak bildurik, hona hemen Biltzarrak ontzat eman dituen puntuak.*

*Batasunari buruz, euskaltzale guziei erabaki hauek betetzen hasteko eskatzen diegu; eta bereziki Euskaltzaindiari egiten diogu dei bat, bere aipamen guziaz gure erabaki hauek aztertu ondoren onar ditzan.»*



### 3. etapa 2020: *Euskara Eskuz Esku* tresna berria

Ikus dezagun orain duela guti Euskaltzaindak sortu duen *Euskara Eskuz Esku* tresna zer den, EEE ataria zer den.

**EEEren helburu nagusia:** EEE atariaren harreran hori esaten da:

« *Euskara Eskuz Eskuren* helburu nagusia da Euskaltzaindiaren arauen aurkeztea era sinplifikatuan. Arauen aurkezpenean, Iparraldeko hizkeren berezitasunak azpimarratzen dira. Adibideetan, euskara batuko Iparraldeko moldeei garrantzi berezia ematen zaie. »



#### 3.2. EEE zergatik?

« Euskara batua (...) adituatarik kanpo, Ipar Euskal Herrian guti edo gaizki ezagutua dela ohartzen da. Batzuetan, tokiko hizkerekin nahasten da. Hitzun zenbaitek zalantzak badituzte: zein forma erabil testuinguru batean edo bestean? Zein da euskara batuan forma egokia? Haurtzaroan ikasi nuen forma hori erabil daiteke euskara batuan? Etab. »

**Xede-publikoa:** Nori zuzentzen zaio EEE?

« Helburuko erabiltzailea Iparraldeko euskaldun alfabetatua da, euskara batua erabili nahi duena: irakasleak, ikasleak, euskara idatzia erabiltzen dutenak eta, jende horretaz harandian, diasporan edo Hego Euskal Herrian gai horretaz interesa duena ».



#### 3.3. *Euskara Eskuz Esku* - Ipar eta Hegoko hitz baliokideak

Arauez gain, gauza anitz aurkitzen dira EEEen: inkesta soziolinguistiko bat, aditu batzuen elkarrizketak, puntuazioari buruzko atal bat, testuak euskara batuari buruz Ipar Euskal Herrian (euskara batuaren historia, literatura, hizkuntza politika, etab.).

Denbora faltarengatik, atal bat bakarrik aipatuko dut, lexikoari buruzkoa: **euskara estandarra / (versus) Iparraldeko ohiko moldea** deitu dena.

Badakigu Iparralde eta Hegoalde artean ezberdintasun-lexikalak baditugula. EEEren erabiltzailea lagundu nahi izan dugu hitz baliokide arruntenak aipatuz.

*abesti* > *kantu, kanta, kantore* (Zub.)

*abuztu* > *agorri (a)...*

(irakur)



- *Eskerrik anitz! Eskerrik asko!*
- *Eskerrik hanitx, aunitz, ainitz, hagitz.....*